

# Genero Inpaktua politika publikoetan

María Pazos Morán  
Azterlan Fiskalen  
Institutua  
[maria.pazos@ief.meh.es](mailto:maria.pazos@ief.meh.es)  
(2008ko maiatza)

## 1.- Genero inpaktuaren analisia: ariketa tekniko bat baino zerbait gehiago

1995ean Pekinen (Beijing) izandako Emakumearen Laugarren Mundu Konferentziak gobernuei eta gainerako agenteei gonbitea egin zien *erabakiak hartu baino lehenago, politika eta programa guztietan genero ikuspegia sar dezaten, politika eta programa horiek emakume eta gizonengan izango dituzten ondorioak aztertu ahal izateko.*

Hitzaldi honetan politika publikoetan generoak duen inpaktuag ebaluatzearen oinarriak azaltzen saiatzen gara. Emakumeak eta 'haien lanak' eremu publikoetatik at izan dira, analisi ekonomikoak ez ikusiarena egiten die, estatistika publikoak ikusitezinak bihurtzen ditu, politika publikoek ez diete haien beharrei jaramonik egiten eta orohar, gai horiek existitzen direla kontutan ez hartuzera ohituta gaude. Horregatik, 30/2003 Legeak, zioen azalpenean, nabarmentzen du *emakumearen arazoek oraindik ere bigarren mailako lehentasuna dutela eta gorarazten du Europar Erkidegoko Batzordeak badienez zenbait erabaki politikok, printzipioz sexistak ez diruditen arren, emakume eta gizonengan eragin ezberdinak dituztela (hala izatea aurrikusi eta nahi ez bada ere), zeharkakotasunaren (mainstreaming) gaineko komunikazio bat onartu zuen, erkidegoko politikan genero ikuspegia gauzatzeko konpromisorako lehen urrats gisa.*

Genero inpaktuaren ebaluazioa ez da jarduera tekniko soil bat. Hura egiteko beharra politika publikoak neutralak ez izatearen ondorio da. Izan ere, gizarte eredu patriarkala islatu eta bultzatzen dute. Ezberdintasunezko gizarte eredu hori gizarte, ekonomia, hezkuntza, osasun, eta abarren inguruko politiken bidez transmititzen da, baina mekanismoak ez dira begi bistakoak eta horiek agertaraztea zaila da. Tradizioa eta ohiturak natural iruditzen zaizkigu; eta politika publikoak politikek berez sortzen duten ezberdintasunetik kanpo daudela ematen du. Egungo gizarte ereduak gizarte posible bakartzat aurkezten badigute, 'bai' da esan daitekeen bakarra. Hala ere, bada beste gizarte eredu posible bat, gizon eta emakumeen arteko berdintasunean oinarritutakoa, lan banaketa sozialik ez duen gizarte bat. Nazioarteko esperientzia historikoak proba zientifikoak ematen dizkigu: maila berean dauden sostengatzaile/zaintzaileetan oinarritutako gizarte antolaketa eredu hori posible izateaz gain, ekonomikoki eraginkorragoa da. Gainera, bazterkeriarekin amaitzeko nahia atzeraezina dela soberan erakutsi dute emakumeek. Horrek beste modu batetara antolatuzera behartzen gaitu, gizakiak gutxieneko demokratiko batzuekin bizirautea ziurtatu nahi badugu.

Lan banaketa desagertaraztearen helburuak genero inpaktua aztertzeke oinarritzko erreferentzia ematen digu. Posiblea eta bideragarria den aukera bat egoteak bestela sahiestezin edo hutsal iruditu dakizkigukeen mekanismoak ukatzera eramaten gaitu ('genero aurreko itsutasuna' deritzon fenomeno alegia). Dena dela, 'berdintasun politikak' deituriko horiek ez dute beti erabateko berdintasuna kontutan izan. Aitzitik, 'jarduera positibo' eta 'kontziliazio' neurri askok, berdintasun politiken parte direnak, ez dute lan banaketa zalantzan jartzen eta askotan indartu ere egiten dute. Hori da azken hamarkadotan gertatu izan dena eta NBE eta Europar Batasuna mainstreaming estrategia hartzera behartu zituenak. Politika publikoen joera orokorra kolokan jarri gabe, zuzentarauak sartzen saiatzen ziren; hain zuzen ere, osabidezko neurriak, bazterrekoak eta aurrekontu sinboliko batekin, joera orokorraren norabidea aldatzeko gai ez zirenak.

Horrela, mainstreaming-a (joera orokortuz), politika publiko guztiak kolokan jartzea dela aitzat izanda, politikak berdintasunezko gizarte eredu baterantz orientatzearekin estuki lotua dago eta horrek genero inpaktuarentzako galdera giltzarria ematen digu. Baina estrategia honek zailtasun izugarriak ditu. Erraza da norabidea galtzea finkatutako helburua lortzeko bitartekoak ezartzerakoan. Zaila da trabak gainditzea, asko dira eta sarritan ezkutukoak. Ideologia nagusiak mekanismo ugari ditu guztia berriz bide onetik emateko. Dena dela, dagoen bide bakarra da eta buru-belarri ari gara. Espero dut ondorengo hausnarketa hauek bidea errazteko balio izatea.

## **2.- Emakumeak bizitza sozialetik baztertzea eta lanaren banaketa sexuala**

Aurrekontu publikoa gobernuaren politika ekonomikoaren adierazpena da eta bi helburu ditu: hazkundera eta banaketa (birbanaketa). Bi helburuetatik at izan dira beti emakumeak. Hazkunde ekonomikoari dagokionez, emakumeak ez ziren 'aktiboak' (edo beste era batera esanda ez ziren subjektuak). Ekonomiaren ikuspen (eta antolaketa) zaharkituaren arabera, gizonak hartzen ziren (haiek haien buruei) subjektu ekoizletzat. Emakumeak eta haiekin batera ugalketa, etxea, zaintza eta emakumezkoen ezkutuko mundua ez ziren aintzat hartzen, oztopo bezala ez bazen. Birbanaketa egiteko orduan, tradizioz, emakumeek ez dute eskubide sozialik izan (adib: familia oinarri zuten zerga eta zerbitzu sistemak), ez eta baliabide publikoak lortzeko aukerarik ere.

Emakumeak baztertuak izan dira ekoizle, kontsumitzaile, zerbitzu publikoen erabiltzaile eta azken finean herritar gisa eta gizartean oso errotuta dago hori. Erregimen zaharrear emakumeak morroi hutsak ziran, ilustrazioan ez ikusiarenak egin zitzairen eta egun ia eremu guztietan baztertuta daude (ikus adibidez Laura Freixas-en artikulua zoragarria 'Emakumeen bazterkeria kulturalen')<sup>1</sup>.

Alabaina, zerbait aldatu da. Azken mendean zehar, eskubide politikoak lortuz joan dira. Celia Amorós-ek azaltzen duenez, Rousseau-ren Kontratu Sozialean emakumeak ez dira aipatu ere egiten eta garaiko mugimendu politikoetan

---

<sup>1</sup> El País, 2008ko maiatzaren 4a.

parte hartzea ekidin zitzaien. Norbanakoaren eskubideen lorpenak eta 'Ilustrazioa' deitutako prozesu guzti horrek bidea erraztu zuen emakumeek herritar estatusa eska zitzaten (Amorós, 1997; Posada, 2000). Printzipio demokratikoek, arrazoimenaren ezarpenak eta proba zientifikoek, tradizioaren eta Jainkoaren autoritateari kontrajarrita, egitura politika berri bat eratu zuten eta egitura horretan, zaila zen baztertzea gainerakoen moduan pertsonala arrazionalak zirela erakusten zutenak, emakumeek egin bezala. Sufragio unibertsalaren printzipioak emakumeei aplikatu zitezkeen eta, nahiz eta hamarkadetan ukatu, lortu zuten. Emakumeak pribatua/gizonak publikoan bikoiztasuna jada ez da onargarria printzipio politiko gisa.

Ekonomian gauzak astiroago doaz. Ere horretan ere gizartea demokratizatu egin da, botere publikoetan pertsonen eskubide sozial eta ekonomikoekin bat datozen jardura printzipioak ezarriz. Zerga eta zerbitzu sistema, adibidez, berdintasunarekin, eraginkortasunarekin, gardentasunarekin, eta abarrekin lotutako printzipio argi batzuei egokitu behar zaie. Baina printzipio horiek sistemen diseinura aplikatu behar direnean, legegilearen buruan gizarte zaharkitu baten ideiak dirau, hots, gizonak eremu publikotan eta emakumeak pribatua. Gizarte Segurantzaren sistemak 'langilearen' babesa ziurtatzeko eratu ziren. 'Langile' eredia betiko langile industrialia da, gizarte kotizazioak metatzen dituen langabezia une bakan batzuetan salbu. Unibertso horretatik kanpo, hainbat arrazoirengatik baztertutako biztanle talde bat dago, baina baita ere, kopuru eta hein handiago batean, zaintza lanak egiteagatik edo egin izanagatik baztertuta egon diren emakume asko. Emakume hauek alboratuta daude eta legegilearentzat beste edozein baztertu talde baino ikusiezinagoak dira<sup>2</sup>.

Hortaz, hasiera batean emakumeak alboratuta eratu ziren eskubide politikoen antzera, eskubide ekonomikoak biztanleen erdia bakarrik kontutan hartuz egin ziren eta 'emakumezko' mundua alde batera utzi zen. Emakumeak eta 'haien lanak' pakete bakarra ziren eta 'pribatua' osatzen zuten. Aldiz, gizonak eta 'ekoizpen' lana, mundu publikoan zeuden.

Baina behin ebidentzia historikoa agerian utzita, hona hemen auzia: emakumeak jasan duten 'apartheid' hori etxeko lanekin ezinbestean lotuta dago? Posible da emakumeak gizartean integratzea lana banatu gabe? Posible da etxeko lanak gizartean baloratzea 'emakumezko eta pribatuak' diren artean? (hau da, gizonekin, merkatuarekin eta zerbitzu publikoekin zerikusirik ez duten gaiak) Etxeko lanak ikusezin izatearena eta haiek kontabilizatzeko saiakerak azken urteotako literatura ekonomiko feministan behin eta berriz agertzen diren gaiak dira (Espainian, besteak beste, Carrasco, 1991; Durán, 1991). Sainsbury-ren (1991) hitzetan, salaketa horiek erabilgarriak izan ziren hasiera batean, baina azpimarratu zuenez, zenbait mugimendu feministek

---

<sup>2</sup> Hona hemen gai hori islatzen duen adibide adierazgarri bat: kartzelatik irtendako biren kasua, horiek dira langabezia eskatzeko aurretik kotizaziorik eduki behar ez duten bakarrak, errentarik ez izatea eta kartzelan sei hilabete baino gehiago egon izana dira bete beharreko baldintza bakarrak. Zerbitzu hori ulergarria da gizarteratzeko beharagatik, baina etxeko-andre izandako bat edozein arrazoirengatik diru sarrerak galdu baditu, gizarteratu beharra dauka baita ere eta hari ez zaio ezer ez emango. Etxeko-andreak ikusezinak dira eta are ikusezinagoak (oraindik ere) etxeko-andre ohiak.

hartutako jarrerak arriskutsuak dira eta baita ere jarrera horiek zenbait herritako politika publikoak eratzean izan duten eragina.

Pertsonak askok uste dute etxeko lanak kontabilizazioarekin eta Kontu Nazionalan sartzearekin lan hori ikustarazi eta baloratuko dela. Hala ere, ez dago inongo herrialde eta arotan etxeko lanak sozialki baloratu izanaren arrasto zientifikorik, emakumeen lana zen bitartean eta haiek lan munduan sartu ziren arte. Izan ere, bereizkeria zalantzan jarri zen emakumeek 'haien lanak' bakarrik egiteari utzi ziotenean. Emakumeak masiboki 'azaleko' ekonomian sartzean, eskubide publikoak irabaziz eta hezkuntza eskuratzen zituzten heinean, gizonak = publiko / emakumeak = pribatu paradigma krisian jarri da, gizartearen irudi horrek ez baitu errealitatearekin bat egiten jada. Emakumeak mundu publikoan daude eta prozesua itzulezina da. Ondorioz, etxeko eta zaintza lanak argitara atera dira. Emakumeak ezinbestean egin beharreko lana ez den heinean, aukera-kostua nabari bihurtzen da eta egun 'lan banaketa berria' deritzoguna baliogabetzen da, hots: gizonak etxeko lanetan hasi ez izana, emakumeak soldatapeko lanetan sartu diren moduan.

Lana da emakumeen burujabetasun ekonomikoa lortzeko bide bakarra. Zenbait mugimendu feministek burujabetasuna soldatapeko lanarekin parekatzeari uko egiten diote eta aldiz, etxeko lana baloratzean tematu dira, soldapeko lanarekin bateragarri ez diren zaintzarako zerbitzuei laguntza emanez<sup>3</sup>. Zenbait herrialdek mota horretako zerbitzuak ezarri dituzte, baina zerbitzu horiek gizon sostengatzaile/menpeko emakume eredia indartu baino ez dute egin (Sainsbury, 1999).

Kontua da, Orloff (1993) eta O'Connor-ek (1996) adierazi bezala, genero desberdintasuna gauzatzen da gizonei mantentzaile eta langile izateagatik eskubide-subjektu diren heinean eta emakumei emazte eta zaintzaile izateagatik zerbitzuak ematen zaizkien bakoitzean. Idazle horien esanetan, merkatuan parte hartzeagatik eskuratutako eskubideak, zaintzan oinarritutakoak baino handiagoak dira eta horietatik gehienek dira emakumeek eskura ditzaketenak. Hausnarketa horien arabera, Orloffek *soldatapeko lana lortzea eta etxe autonomo bat osatu eta mantentzeko gaitasuna* funtsezkoa dela uste du.

Laburbilduz, etxeko lanak emakumeenak izateak emakumeen bazterkeria eta haien bizitzen gainean erabakitzeke ezintasuna dakartza. Nahiz eta behin eta berriz etxeko lanen baloratze eta aitortzea aldarririkatu, aitortze horrek ez die burujabetasun ekonomikoa ahalbidetzen eta burujabetasuna askapenerako giltzarria da.

Beste galdera bat da egungo gizartean lan banaketa desagertaraztea posible ote den. Zenbait idazleek ezetz deritzote, 'beste ekonomia', 'beste lan merkatu' baten beharra defendatuz, "'berdintasunez" harantzago doan pentsamendu ildo berri bat' (Carrasco, 2006). Alabaina, ez du ematen

---

<sup>3</sup> 'Etxeko-andrearen soldata' deritzonak (zenbait taldek eskatzen dute) zerbitzu publiko izaera du eta ez da, bere izenak iradoki lezakeen bezala, zerbitzuaren onaduradunek (senarrak) emakumei emandako soldata.

emakumeek bazterkeriatik atera eta ekonomia hau deuseztatu eta beste berri bat sor dezaketenik (eta are gutxiago bakarrik), aurrena egun dagoen ekonomian sartu gabe ez behintzat. Emakumeen integrazioak ekonomian gauza asko aldatuko ditu (aldatzen ari da jada), parekotasunak politikan gauza asko aldatzen dituen bezala, oraindik 'politika hau' den arren (ez zen 'beste ilustrazio' bat behar, baizik eta ilustrazioa emakumeetara hedatzea). Duela hainbat hamarkada zenbait idazlek, 'ezberdintasunaren feminismoaren' parte zirela ziotenak, aurrirakusten zuten emakumeek ezingo zutela eta ez zitzaizela komeni 'politika honetan' integratzea. Gaur, parekotasunak (nahiz eta erabatekoa ez izan) aurrirakuspen horiek hondatu ditu.

Era berean, nazioarteko esperientziak emakumeen integrazio ekonomikoa irudikatzeko aukera ematen digu, partzialki gertatu baita jada. Eta zein arrazoi egon liteke gizonak etxeko lanen %50a egin ez ditzaten? Zenbait herritan parte bat egiten dute. Genero errolak gutxinaka lausotzerakoan ohitura asko aldatzen ari dira, enpresen antolaketa, ordutegiak,... Aitzitik, bide horretan gehien aurreratuta duten herriak<sup>4</sup> ekonomia lehiakortasun zerrendetan lehenak dira. Orduan, zein argumentu zientifiko dugu emakumeak integratu ezin direla esateko? Baieztapen horiek bazterkeriaren ondorio izan litezke bakarrik, kaltetuen aburuz sahistezina dena<sup>5</sup>.

### **3.- Genero inpaktuaren analisia: Ebidentzia zientifikoari men egin eta 'emakumeen salbuespena' saihestearren beharraz**

Emakumeak kalitatezko enpleguan sartzeko eta gizonak etxeko lanetan %50a egiteko helburua aldarrikatu ondoren (emakumeen burujabetasun ekonomikoarekin bat datorrena), galdera honakoa da: nola aldatu beharko litzateke jarduera publikoa (aurrekontu publikoa) helburu horretara egokitzeko? Puntu honetan berehalako eraginaren analisi hutsa egitea ez da nahikoa (zeintzuk dira lehen kolpean kaltetutakoak, zeintzuk politika publikoen hartzaileak), politika bakoitzak agente ekonomikoen jarreraren duen eragina aztertu behar da, hots: epe laburreko, ertaineko eta luzeko inpaktu analisi bat egitea. Aurrekontu publikoa, ikusiko dugun bezala, lan banaketaren iraupenean funtsezko papera du eta emakumeak baliabideen eskurapenean baztertuak izatearen gainean baita ere. Mekanismo horiek ulertzea beharrezkoa da jakiteko politika publikoek berdintasuna bultzatzen duten (genero inpaktu positiboa) edo ezberdintasuna mantentzen (genero inpaktu negatiboa) lagundu.

#### **Emakumeak, analisi ekonomikotik eta metodo zientifikoetatik alboratuta.**

Genero inpaktuaren analisiak oztopo asko aurkitzen ditu eta horietako bat da emakumeak ekonomiaren eta gizartearen parte direla kontutan hartzeren zailtasuna. Gobernu lehendakarietzarako hautagai den emakume bat funtsean

---

<sup>4</sup> Suedian esaterako, ez dago etxeko-andreen sektorerik eta gizonak urteko lanegunen %20a hartzen dute jaiotza eta adopzio baimenetan (Espainian ia %0 da).

<sup>5</sup> Ildo honetatik, Sainsburyk (1999) feminismoak herri ezberdinetan izandako eragina erkatzen du, eta baieztatzen du eragin handiagoa duela "gizon sostengatzailea/mendeko emaztea" ereduak indar gehien duen herrietan.

emazte eta amatzat hartzen jarraitzen den bezala, errealitatea itxuraldatzen da emakumeei dagozkion kontuak aztertzean. Clara Campoamorrek 'Mi pecado mortal. El voto femenino y yo' lanean adierazi bezala: "*Inongo arazo politiko, juridiko edo sozialen inguruan ez dira esaten emakumearen gainean eztabaidatzen diren zentzugabekeri eta gehiegikeriak*" (Campoamor, 1936). Emakumeekin zerikusia duen guztia ahaztea eta 'benetako errealitateari' aplikatzen zaizkion arau ezberdinak aplikatzea (emakumeei eta inguruko gaiei), oraindik ere erarik sotilenean (eta batzuetan zakarrean) gertatzen da. Ez da soilik etxeko lana ahazten eta emakumeek herritar diren heinean dituzten beharrei ezikusiarrena egiten: gaie horiei dagokionean, merkatuen eta agente ekonomikoen portaeraren araurik funtsezkoenak ahazten dira, proba estatistikoak gaitzesten dira, dirua existitzen dela ahazten da eta metodo zientifikoaren aplikazioa eraldatzen da.

Fenomeno horren adibide asko daude. Horietako bat aurrekontu partiden dimentsioa da. June Zeitlin-en (Ingurune eta Garapenerako Emakumeen Elkartearen zuzendari ejekutiboa) hitzetan, "*ez zara matematikako jenio bat izan behar ikusteko 'biribilketa akatsa' dela genero berdintasuna bultzatzen duten eta emakumea sustatzen duten NBEko erakundeei esleitutako diru kopurua*". Zalaparta handiz iragarritako neurrietara ohitu gara, aurrekontu sinboliko bat baino ez dutenak; berdintasuneko jostailuentzako edo genero berdintasunaren aldeko 'kanpainiak', iragarki pare bat baino ez diren arren; helburuak aldarrikatu ekintzarik antolatu gabe; etab. eta guk begitartea aldatu ere ez. Gainerako eremuetan ekimen bakoitzak bere aurrekontua behar duela ez da zalantzan jartzen. Aitzitik, genero berdintasunari dagokionean, berdintasunaren alde lan egiten dutenek '*aurrekonturik gabe, berdintasun politikarik ez*' leloa sortu dute. Tautologia bat dirudi, baina egoeraren isla da.

Emakumeei eragiten dizkieten politikak diseinatu eta aztertzerakoan, ez dira aurrikusitako eraginak kontutan hartzen eta horiek aintzat izatearen garrantzia ukatzen duten argumentuak erabiltzen dira. Askotan esan ohi da, esaterako, emakumeek etxean umeak zaintzen geratzea nahiago dutela, nazioarteko datu konparatiboak aztertu gabe, hautatzeko aukera errealekin batera eta ez dira aintzat hartzen emakumeek beharraren mende ez daudenean egindako deklarazioak ere. Baina are larriagoa dena, aukera askatasunaren argumentua (maiz pertsonaletik familiarrekora bihurtuta) ez da erabiltzen emakumeek zaintza lanak egitearen gainean ez bada. Inor ez da gogoratzen etxe bat erosi edo alokatzearen askatasunaz, enpresek haien jarduera aukeratzeko askatasunaz, nahi dugun adinean jubilatzearen askatasunaz, etab. Orokorrean, politika ekonomikoak gauza baterako ala besterako aukera ematen duela onartzen da eta baterako edo besterako eskubideak bermatzen saiatzen dela, baina inongo beste gaietan ez da agente ekonomiko bat edo beste aukeratzearren askatasuna helburua bera (Pazos Morán, 2007).

Lan merkatuaren analisisian oraindik ere pentsatzen da pertsonen lana eta aisiaren artean aukeratu behar dutela, etxeko lanak kontutan hartu gabe. Langabezia laguntza eta kotizaziopeko pentsioen diseinuak aldizkako lanaldiak bultzatzen ditu; baina ahazten du diseinuen horien eta (eta kaleratzeen

merketzea), zaintzaile izan daitezkeen emakumeen erretirorako (partzial edo erabatekoa) erraztasunen arteko elkarreragina.

Neurri ezberdinak erabiltzea, arau orokorretan ez sartzea, ikusezintasuna, erantzun eza, lege eta eskubideak ez betetzea, emakumeen inguruko guztia alboratzea, bazterkeria mekanismo argiak dira. Beste mekanismo bat emakumeak 'ezberdinak' direla eta bazterkeria nahi dutela esatea da. Berdintasunerantz abiatzea edozein motako bazterkeria mekanismoak erauzteak dakar, gertaeretatik hasita pentsaeretara arte. Emakume eta gizonen arteko erabateko diferentzia ezaren ikuspen horrekin bakarrik (ez du pertsonen arteko banakako ezberdintasunarekin zerikusirik, baizik eta guztiz kontrakoa.- ikus Amorós, 2005), mekanismo horiek ezagutu eta ezabatu ahal izango ditugu. Eta ikuspen horren bidez, neurri bakoitzaren genero inpaktua aztertu ahal izango dugu.

### **Pizgarrien eta politika publikoen neutraltasun faltaren arazoa**

Genero berdintasuna aztertzean sarritan alboratzen den kontu bat pizgarrien garrantzia da. Aitzitik, Wikipediak berebiziko garrantzia ematen dio ekonomiaren azterketetan eta 'politika ekonomikoak' terminoaren definizioan honakoa aurki daiteke: '*oro har, Estatuaren eskuhartzearen funtsezko helburua da subjektu ekonomikoaren jarrera aldatzea pizgarri, suspergarri, hobari, eta abarren bidez edo subjektu horren jarduerak debekatu edo mugatzea*'. Pizgarrien kontuaren garrantzia horren handia da ezen idazle batzuk ekonomia honela definitu duten: 'pizgarrien azterketara aplikatutako zientzia'. Beste batzuk urrunago doaz, Lewitt-ek (2005), esaterako, baieztatzen du pizgarriak bizitza modernoaren giltzarria direla eta horiek ulertzea edozein misterio ulertzeko gakoa dela.

Hortaz, ez da 'ondoriorik' gabeko jarduera publikorik eta ezta aurrekonturik gabeko jarduerarik ere. Emakumeek 'boterearen erdia, diru sarreren erdia eta ospearen erdia' izan dezaten (Gustafsson, 2008), banaketa aldatu beharko dugu eta nolabait, botere, diru sarrera eta ospearen natura baita ere. Dena dela, ezin dugu ahaztu politika publikoek pertsonen jarreraren inguruan eragina dutela, nahiz eta eragin hori helburu gisa argi ez agertu (Rubery, 2003). Gakoa da, azterketa zientifiko bat egin ondoren, baieztatu dezakegun jarduera horiek berdintasuna bultzatzen duten edo ezberdintasuna matentzen laguntzen duten; eta horiek nola bideratu berdintasuna sustatu dezaten (ikusiko dugunez, ez da hori emakumeei 'lehentasunezko tratua' ematearen parekoa, baizik eta herritar guztiei aukerak berdinak bermatzea eta guztien beharrak berdintasunez erantzutea —eta ez hori betetzen—).

### **4.-Aurrekontu publikoaren papera ezberdintasunaren transmizioan: ekintza positiboaren politiketatik genero mainstreamin-era arte.**

Zein da politika publikoaren erantzukizuna sistema patriarkalaren jarraipenean? Aurrekontu publikoaren partida askok, egun darabilten norabidean, ezberdintasuna sortzen dute. Atal honetan, partida horiek horretarako darabiltzaten mekanismoak aztertuko ditugu. Bestalde, konpentsatzeko edo

arintzeko mekanismoek ez diote ezberdintasunari kontra egiten, hein handi batean aurrekontu bereko beste partidek sortutako ezberdintasuna baita hori.

### **Mainstreaming-aren orientazioaren hasiera: politika publikoen neutraltasun falta**

Historikoko genero berdintasunaren kontzeptualizazioak hainbat etapa igaro ditu. Etapa horietako bat oinarritu zen desberdintasun horiek biologiaren beraren gauza natural eta berezkoz hartzean. Jarraian, 'berdintasun formala' deituriko aldi edo baita modu ezegokian 'berdintasuna legearen aurrean' deiturikoan, aurrekoa ordezkatu zuen ikuspegia bidegabeko eta antinatura ezberdintasunena izan zen. Desberdintasun horiek pertsonen pentsakeran diraute iraganeko hondakin moduan eta belaunaldiz belaunaldi igortzen dira ohituren, sinismenen eta jokabide pribatuen bitartez, nahiz eta sektore publikoak horretan inolako zerikusirik ez izan. Asko jota, ikuspen horren arabera sektore publikoak politika berdintzaileak egin beharko lituzke pertsona eta erakunde pribatuek sortutako bereizketari aurre egiteko. Hori izan da XX. mendeko azken hamarkatetan indarrean egon den ikuspegia. Aldi horretan desberdintasunaren ondorioak konpondu nahi izan ziren 'berdintasun politika zehatzak' deritzonekin, zalantzan jarri gabe politika publikoen korrante nagusiaren orientazioa.

Estrategia hori krisian sartuko da 1990 urtean. Berdintasuna eta 'ekintza positiboko politika' erretorikak hainbat hamarkadetan zehar mantendu eta gero, egiaztatu da 'berdintasun erakundeek' administratutako eta beti ere aurrekontu sinbolikoa izan duten 'berdintasunezko' politika horiek ez dutela lortzen emakumeen arreta ezari aurre egitea, aurrekotu handia eskatzen baitute. Zertarako balio du 'berdintasunezko' aurrekontu zehatz bat izateak emakumeek aurrekontuaren % 99,9an marginatuta jarraitzen badute?

Aldi honetan nabarmena izan zen emakumeen bazterketa erakutsiko zuten sexu eta azterketa zehatzen inguruan lortutako estadistiken beharra, baina Estatistika Institutuak ez zuten ardura hori bere gain hartu. Emakumearen institutua 'genero estatistika' egiten hasi zen baina urritasuna agerian geratu zen eta berehala estrategia bat antolatu zen: '*genero estatistiketatik estatistika publikoen genero ikuspegira*' (Corner, 2005). Pekineko Kongresuak 1995ean estatistika publikoak sexuen arabera zatitzea derrigortu zuen.

Pekineko kongresuan ere, hausnarketa prozesu baten ondorio moduan eta suediar feministek hala eskatuta batez ere, 'Mainstreaming' estrategia landu zen. Estrategia horrek politika publikoetara itzuli beharra adierazten du horiek eztabaidatzeko. Formulazioarekin agertu nahi dena da politika publikoak ez direla neutralak. Alderatiz, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak igortzen dituztela. Politika publikoek gizarte eredu zehatza islatzen eta bultzatzen dute aldi berean, nahiz eta eredu hori inplizitua izan eta existitzen dela ez aitortu. Hezkuntza sistemak adibidez, umeei portaera arau jakin batzuk igortzen dizkie. Gaur egun oraindik ere eskoletan (salbuespenak izan ezik) neskei panpinak ematen zaizkie jolaserako eta

mutilei kamioiak. Gaur egun oraindik ere diru publikoarekin portaera ezberdinak bultzatzen dituzten jarduera artistikoak eta dibertimenduzkoak sustatzen dira: psikologikoki segurtasun eza eta anorexia areagotzen duen emakumezkoen moda, gazteak hain teknikoak ez diren karreretara orientatzen dituen eskola orientazioa, mutilentzako eta neskentzako kirol jarduera ezberdinak eta ezberdinak. Horiei dagozkien aurrekontu partidak oso ezberdinak dira gainera. Telebista publikoan eta aurrekontu publikoan gizonetzkoen futbolak (futbola deritzona) emakumezkoen eremuak ('fútbol'a ez deritzona, 'emakumezkoen futbola' baizik) baino toki handiagoa betetzen du. Gauza bera gertatzen da aurrekontuarekin burututako gainontzeko jarduerekin.

Enplegu zerbitzuek emakumeei aholku eta lanpostu gutxiago eskaintzen dizkie, nahiz eta langabetuen artean gehiago izan eta trebatuagoak egon (Europar Batzordea, 2005). Osasu zerbitzuek emakumeei ez diete jaramonik egiten, zerbitzuek eta gizarte zerbitzuek emakumeak bazterten dituzte, emakumeen pobrezia ez da aintzat hartzen. Genero indarkeriaren kontrako neurriak daude baina arriskuan dauden emakumeak hiltzen doaz eta botere publikoek ez dute ezer egiten beraien segurtasunaren alde, beste arriskuekin eta delituekin alderaezina da.

Pertsonei zuzendutako politika ekonomikoak gaur egun gizon sostengatzaile/mendeko emazte familian oinarritzen den gizarte eredura zuzentzen dira. Hala, ohiko kontribuziozko Gizarte Segurantzaren sistema (oraindik hondarrak geratzen dira) langilearentzako 'berezko eskubideak' deituriko zerbitzuetan oinarritzen zen eta familia babesteko ematen zitzaizkion beste 'eratorritako eskubideak' zerbitzuetan, batez ere bere ezkonlaguna babesteko. Bikotekidea indibiduala izatera pasatzen da langilea hiltzen denean (alarguntza) bakarrik. PFEZren oinarria familia unitatea da, hala, familia buruak zerga arintzeak izaten ditu ezkongalun bat duenean 'bere kargura'. Hori bai, sistema honetan emakumeek zerbitzuak jasotzen dituzte baina orokorrean zerbitzu horiek emakumeek duten zaintzaile lanean oinarritzen dira, umeen eta mendeko pertsonak zaintzea emakumeen lana dela kontsideratzen baita. Gizonak Espanian orain arte Gizarte Segurantzaren ez ziren umea zaintzeko subjektu moduan onartzen ere, orain berriz 13 egun ematen zaizkie. Bitartean, emakumeek lan horretarako 16 aste dituzte. Guraso baimen transferigarriak (Gizarte Segurantzaren material salbuespena da) neutralak izan zitezkeen generoaren aurrean mundu perfektu batean baina praktikan amatasun baimenen hedapen izkutuak dira (Castro y Pazos, 2007). Gizarte Segurantzaren kotizazio mugek ere jardunaldi luzeak eta soldatapeko gizonen superespezializazioa sustatzen dituzte. Eta horrela aurrerantzean (Pazos, 2006).

Familian oinarritzen diren politika ezberdintzaile hauek berebiziko garrantzia dute desberdintasun hori igortzerako garaian. Politika horietako batzuk gastu publikoko partida garrantzitsuak suposatzen dituzte (gastu fiskala barne) eta horietako batzuk ez dute inolako balio sozialik. Zerbitzu horiek kenduko balira partida horien egungo aurrekontua beste helburuetarako erabili ahal izango litzateke.

## Genero Mainstreaming-a ekintza positiboen aldiaren garaipen modura

Politika guztiek (politika publikoen-‘main stream’-korrante nagusia) berdintasuna ziurtatu behar dutela aitortzeak sektore publikoaren lanaren esanahia iraultzea dakar. Politika publikoak neutralak ez badira, horien orientazioa aldatu beharko da. Berdintasunezko politika jakinez hitzegiteak ez du zentzurik, izan ere, nolakoak izango lirateke gainontzeko politikak? Politika guztiak berdintasunezkoak izan behar dira. Bestetik, ‘berdintasun politikak’ badaude gainontzeko politikak ez dira berdintasunaz arduratzen, hala, aurrekontuaren %99arekin ezberdintasuna areagotzen da.

Enplegu politika aktiboetan adibidez, emakumeak kontratatzeko dirulagutza zehatzek lehentasunezko tratua ematen dietela dirudi, nahiz eta benetan kontrakoa izan. Ez da beharrezkoa eta nire ustez egokia, ‘emakumezkoentzako’ neurriak jartzea, nahikoa da ‘bizi guztiko’ eta ‘familia buruari’ lehentasuna ematen dieten praktika kutsatuak kentzea. Praktika horiek politika publikoen oinarri nagusiak hausten dituzte, politika horien arabera arreta gehiago jarri behar baitzaio hala behar duenari. Iraupen luzeko langabeak, hezitzaile ohiak, seme-alabentzako haur hezkuntza zerbitzuak behar dituzten guraso bakarreko langabeak, (horiek prestatzen edo lana bilatzen dauden bitartean), aurreko lan esperientziarik ez duten adin batetik gorako langabeak edo aldi luzeetan lan mundutik kanpo egon direnak, etab. Arazo horiek dituzten pertsonen arreta eman behar zaie bereziki, ez bakarrik emakumeei, eta ez emakumeak izateagatik noski, beraien lan munduratzea eta beharrak handiagoak direlako baizik.

Helburua ez da beraz emakumeei tratu faboragarria edo abantaila ematea, “sesgos de género” deiturikoak ezabatzea baizik; horrela izena dute gizonen aldeko tratua ematen zaielako emakumeei eragiten dieten egoerei jaramonik egiten ez zaien bitartean. Neutraltasunarekin nahikoa dugu, gauza da benetan neutralak diren politikak ezberdintzea generoaren eta neutraltasun itxuraren aurrean (literatura feministan ‘gender blind’ edo ‘ciegas frente al género’ deituriko politikak). Helburua da baita ere, kategoria bakoitzean sexuaren arabera banatutako irizpideak eta aurrekontuak zaintzea, estatistikoki nabarmena baita gizonak emakumeak baino nabariagoak direla; hala, enplegu zerbitzuetan eta baita enpresetan ere, hezkuntza sisteman eta bizitzako eredu eta egoera guztietan. Zertarako balio digute programa bereziek (sistematikoki aurrekontu sinbolikoa dutenak) programa orokorretan alde batera uzten bagaituzte? Arretaren erdia da emakumeek behar dutena, ez besterik. Eta izugarri falta da hori lortzeko. Kuotak, enplegu politiken genero (guztien) ebaluazioa, etab, beharrezkoak dira, ez emakumeei lehentasuna emateko, gaur egun gizonak helburu diren nagusitasuna kentzeko baizik. Ez da beharrezkoa horri ekintza positibo deitzea: justizia besterik ez da.

Laburtuz, jarduera positiboek politika publikoen korrante nagusiaren orientazioa zalantan jartzen ez duen orientazioari erantzuten diete. Jarduera horiek erakunde zehatzek egiten dituzte oso aurrekontu txikiak erabiliz eta beraien helburua ez da aurrekontuaren osotasuna aldatzea ezta gainontzeko erakunde publikoen jarduera ere. Estrategia koherentea da eta politika publikoak jada neutralak diren ikuspegia du, ondorioz, sektore publikoak

bazterreko esfortzu gehigarriak besterik ezin ditu egin gizartearen errua ez den baina bertan dagoen desberdintasuna orekatzeko. Ikuspegi horrek ez du zalantzan jartzen dagoen gizarte patriarkal eredua, zalantzan jartzen ez delako ikusezina dena (itsua da generoaren aurrean). Ez ditu kendu nahi laneko banaketa eta genero rolak.

### **Zaintzengatik edo berdintasunagatik konpentsatzea? Emakumeentzako al dira 'emakumeentzako politikak'?**

Arazo nagusia da 'berdintasun politikak' izenekoen helburua ez dela izan orain arte bezala lanaren banaketa ikuspegia kentzea, ezberdintasuna eramangarria egingo luketen zuzenketa txikiak egitea baizik. Are gehiago, herrialde askotan berdintasun itxuraren azpian krisian dagoen eredu patriarkala izan duten politikak ezarri dituzte. Zaintzen ordainen estrategia (caregiver-parity strategy, Sainsbury, 1999) diru-sarrera eta giza eskubide faltari aurre egiteko neurriak ezartzean datza, horiek emakumea lan mundutik aldentzen baitute bizitzako etapa jakinetan zainketez arduratzeagatik. Neurri horiek nagusiki zerbitzu ekonomiko eta arintzeetan oinarritzen dira batetik, eta bestetik zainketa aldietan eta/edo seme bakoitza zaintzen emandako denboragatik Gizarte Segurantzako eskumenetan.

Emakumeak konpentsatzeko helburua laudagarria da baina esperientziak erakusten du ezinezkoa dela ezberdintasun hori konpentsatzea eskubide ekonomikoari eta sozialei dagokienez, zainketaren ezberdintasuna dela eta. Ezarritako neurriek ez dituzte soldatapeko pertsona guztien giza eskubideak berdintzen (adibidez, zaintzaileei kotizazioak aitortzen zaizkie baina ez gertakizun guztientzako, batez ere ez langabeziagatik; oinarri arautzaileak ere ez dira berdinak, ezta zainketa denbora guztiagatik ere). Giza kapitalaren eta lan esperientziaren murrizketa berreskurazina da; lanpostuaren erreserbak enpresaria behartzen dute denbora murriztuz batean eta ez dute eraginik kasu gehienetan (batez ere aldi baterako lanak), etab. Neurri horiek ez dituzte konponduko emakumeentzako lanaldi bikoitzaren arazoa, ezta etxeko lanak suposatzen duen ekonomia menpekotasunak eta isolamenduak ekarritako ondorioak.

Lan merkatutik aldentzeak emakumei ekarritako galerak (nahiz eta aldi batean izan eta emakume batzuen kasua bakarrik izan) benetan bizi osoan konpentsatzeko beharko lirakekeen aurrekontu partidak izugarriak izango lirakeke, hori dela eta, bide horretatik inoiz ezingo zaio berdintasun faltari aurre egin. Aitzitik, neurri horiek guztiak eragin negatiboak dituzte, ez bakarrik erretiratzen diren emakume horien enpleguaren gain, baizik eta emakumeen enpleguan orokorrean ere. Enpresari batek emakume edo gizon bat kontratatzerako garaian ez daki pertsona horiek seme-alabak eduki behar dituzten edo zaindu beharreko pertsonarik duten. Dakien gauza bakarra da emakumeak zainketa horiengatik gehiagotan faltatuko direla seguruenik eta horrek lanaz aparteko kostuak ekar ditzazkiokeela. Fenomeno hori (pertsona bati dagokion giza taldearen jokaerari buruzko informazio estatistikoaz informatzea) 'diskriminazio estatistiko' moduan ezagutzen da eta emakume guztiei eragiten die (Thoursie, 2008).

Emakumeentzako 'erraztasun' jakinen lan merkatuaren (eta emakumeen) gaineko efektuak emakumeentzako suntsitzaileak dira. Adibidez, Holandan lan merkatu bereizi bat eratu da eta bertan emakumeen %75ak arduraldi partzalean lan egiten du (Gustafsson, 2008). Ekintza positiboko politikarik ez dago, emakumeak lan mundura sartzen dira eta horretarako amatasunari uko egin behar diote, horrek ekarritako kostu pertsonal eta jaiotza-tasa beherakadarekin. Baina emakumeak euren kabuz lan munduan sartu ondoren, herrialde guztietan politika konpentsatorioak (Nyberg, xxx) sortzen dira non emakumeen mendekotasuna indartzen duen ezberdintasunezko eredu bat barne hartzen den. Giza egitura batzuk bultzatzen dira eta horiek fatxada tradizionalen aldaketa bat besterik ez dira, ezberdinak baitira eta aldatzeko zailagoak. Hori guztia gastu publiko izugarri bati esker.

### **Gizarte politikan beharrezkoak diren egitura aldaketa batzuk laneko sexu bereizketa deuseztatzeko**

Behin erabateko berdintasun helburua ezarrita, lanaren banaketa dakarrena, erraza da helburu horrekin bat datorren berrikuntza programa ezartzea. Horretarako nazioarteko esperientzia aprobetxatu behar dugu. Agente ekonomikoen (gizonak, emakumeak, enpresak) portaera ezagutzen dugu, neurri batzuen eta besteen eraginen inguruko azterketak ditugu, beste herrialde askok aurretik praktikan jarri baitituzte. Informazio asko dugu lan merkatuen osaerari buruz, zeintzuk diren bereizketa bertilakaren eta horizontalaren arrazoiak, zer gertatzen den arduraldi partzalean erraztasunak ematen direnean. Amatasun eta aitatasun baimenen inguruan badakigu zeintzuk diren aitek izan behar dituzten ezaugarriak baimen horiek hartzeko eta badakigu transferigarriak badira horiek amei sistematikoki pasatzen zaizkiela (Nyberg, 2008; Thoursie, 2008). Badakigu baterako zerga ordainketa kenduko balitz ezkonduetako emakumeen lan eskaintza areagotuko litzatekeela, berrikuntza hori egin duten herrialdeen eraginen inguruko azterketak ditugulako (Gustafsson, 2005; Eisa, 1995; Sanz, 1997, 2001; Villota, 2004). Kontrako zentzuan, badakigu etxeko zainketentzako zerbitzuek ahurrak dituzten emakumeen eskaintza txikiagotzen dutela (Afsa, 1999). Eta badakigu neurri horiek gizonen lan eskaintzan ez dutela eraginik, horrek elastikotasun oso baxua erregistratzen duelako (emakumeena oso elastikoa den bitartean). Lortutako esperientzia guztia aprobetxatzean datza, nahi diren helburuak lortzeko berrikuntzak proposatzeko.

Hezkuntzan, osasunean eta beste sektore politiken helburua da emakumeek baliabideen % 50 eskuragarri izatea, aurrekontutik genero rolak iraunarazten laguntzen duten partida guztiak kentzea eta gizon eta emakumeen eskubideak eta aukerak modu berean bermatzea. Ez da jarduera publikorik geratu behar azterketa honetatik kanpo. Giza politikaren neurrietan oinarritzen gara kasu horretan.

Hasteko, beharrezkoa da politika publikoetatik zaintzaile egoeran sartzen eta/edo jarraitzen bultzatzen duten neurriak kentzea, ondorio txarrak dakartza eta. Horien artean, baterako zerga ordainketa PFEZn eta lan merkatutik ateratzeko areagotzen doazen aukerak, seme/alabak eta

mendekoak zaintzeagatik (adibidez, lan utzialdiak seme-alabak zaintzeagatik, bereziki Mendekotasun Legearen 18. artikulua), baita amatasun eta aitatasun baimenen arteko ezberdintasunak ere. Bi sexuen arteko langabezia-tasak berdindu nahi badira, presazkoena zerga eta zerbitzu sistema erabat berdintzea eta indibidualizatzea da.

Baina emakumeek zaintzaile eta/edo beren gizonekiko ekonomia mendekotasun egoera alde batera uzteko, ezkonduko emakumeak kalitatezko enpleguan sartzeko, ez da nahikoa emakume horiek soldatapeko lanari oztopo fiskalak kentzea, ezta enplegua biziki bultzatzea ere. Askoz ere zerga gutxiagorekin lan egitera bultzatzea litezke baina zer egingo lukete umekin eta mendekoekin? Ezin dugu ahaztu ezkonduko emakumeek arduraldi osoan gizonek baino neurri txikiagoan lan egiten badute, aukeraren kostuarengatik dela neurri handi batean (nahiz eta eredu ekonomiko klasikoetan ez jakin, bere aukera ez da aisialdia - lana, etxeko lana baizik - soldatapeko lana). Hala lortu nahi dena emakume horiek arduraldi partzialean hastea al da, horretarako etxeko lanak utzi gabe? Edo agian pentsatzen dena da emakumeak arduraldi partzialean hastea, egoera ezegonkorretan eta lan arduraldi bikoitzarekin? Horrek bizitza are gehiago zailduko lieke eta ez lukete independentzia ekonomikorik edukiko. Etxeko lanen bidezko banaketa behin eta berriz saihestu nahi den funtsezko elementua da baina auziaren gakoa izaten jarraitzen du. Bidezko banaketa honekin batera nahitaezkoa da ahurrak eta mendekoak zaintzeko zerbitzu publikoak ematea, gizonen %50a inplikaturik ere ez litzateke nahikoa izango eta zaintza lanak betetzeko.

Laburtuz, politika publiko guztiak gizarte eredu aldatzera bultzatu nahi dira, gizon sostengatzaile/mendeko emakume egungo gizartetik berdintasuneko pertsona sostengatzaile/laguntzaile gizartera.

## **5.- Laburpen modura: genero Mainstreaming-a Suedian eta beste herrialdeetako ikuspuntuak**

Generoaren ikuspegia aurrekontu publikoan, politika publikoetan sartzeak bertintasun osoko helburua hartzea suposatzen du. Partida handietan desberdintasuna sortzen duen aurrekontua ez da genero ikuspegiko aurrekontua, nahiz eta sexu bidezko banaketa egin.

Suediako esperientzia aztertzea interesgarria da, bertatik datoz politika publiko guztien genero inaktuaren ebaluazioaren ideia eta mainstreaming estrategiaren beraren formulazioa. Herrialde horrek indarrean zegoen eta Olof Palme gidari zuen partidu sozialdemokratak bultzatutako gizarte katarsia jasan zuen. Denbora gutxian egitura berrikuntza garrantzitsuak egin ziren: baterako zerga ordainketa kentzea (1970); amatasun baimena kentzea eta gizonentzako eta emakumeentzako baimen sistema bera sortzea (nahiz eta transferigarritasun klausula bat izan, praktikak berdintasunerako eragozpen bat izango litzatekeena) (1974); 0 urtetik aurrerako ahurren hezkuntza publiko eskubidea zabaltzea mundu osoan (1970; etengabeko ezarrera 1990 arte); mendekoei arreta emateko zerbitzu publikoa (1970); soldatapeko lanarekin bateragarriak ez diren 'familia inguruneko' zaintza zerbitzu guztiak

kentzea (Mendekotasun Legearen 18 artikulua + Berdintasun Legeraren lan-utzialdiak motakoak) (1970); berdintasunezko hezkuntza: jostailu berdinak eskolan, umeentzako etxeko lanak, etab. (1970tik aurrera).

Hala ere, legeetatik laneko banaketarako<sup>6</sup> pizgarriak kenduta ere eta Mainstreaming<sup>7</sup>-ari buruzko Suediar Gobernuaren dokumentu ofizialaren dokumentuan irakurri daitekeen moduan *"bazterketa errotik kentzeko neurri zehatzen aldia igaro eta gero eta emakumeentzako eta gizonentzako baldintza ezberdinak indargabetzeko lege eta ekintza positiboan bitartez"*,... erakutsi zen estrategia horrek jarduera publikoan egunetik egunera dauden genero joera anitzak ez zituela kentzen. Hori dela eta, dokumentuak honela jarraitzen du: *"genero berdintasunerako lana une honetan eguneko lan politiko eta administratiboaren zati bat izango da. 'Mainstreaming de género' terminoa nazioartean erabiltzen da ikuspuntu hori deskribatzeko...1994tik aurrera Gobernuak bere urteko deklarazioak erakutsi du politikoki uste sendoak dituela genero ikuspegiak gobernu politikaren aspektu guztiak eragin behar dituela. Ikuspegi horrek genero berdintasunaren lanean orientazio aldaketa dakar"*. Dokumentuan guztizko berdintasun helburuak laburbiltzen dira, gobernu maila ezberdinetako jarduerak, prestakuntza jarduerak eta aurre ebaluazio ohiko eta ondorengo ebaluazio ohiko tresnak. Istantzia bakoitzeko erantzunkizunak zehazten dira eta Genero Aginpidearen zeregina etapa berri horretan. Adibidez: *"Ministerio bakoitzak genero berdintasunagatik egindako esfortzuak jarraitzeko eta ebaluatzeko ardura izango du. Genero berdintasunerako bikoiztasuna Genero Berdintasunaren ministroaren arabera da eta beste ministerioekin alderatuz proaktibo, koordinazio eta aholkularitza funtzioak bete behar ditu"*. Eta Genero Aginpidearen eskumenak zehazten dira: *"...jarraipena egiten die genero inpaktuko txostenen ezarrerei, arau egokitzapenei eta fintzantza txostenei. Txostenak eta azterketak dagokien ministerioei ematen zaizkie eta elkarrizketa moduan eztabaidatzen dira"*.

Esperientzia horretatik ondoriozta dezakegu genero ikuspegia aurrekontu publikoan ('politika publikoetan') barne hartzeak politikoki berdintasunaren aldeko erabateko konpromisoa hartzea dakarrela, Gobernuko aginte gorenaren adierazpen esplizituaren bitartez, instantzia guztiei emandako jarraibide zehatzekin, jarraibide horiek betetzeko mekanismo eta tresna egokiegina; gaia serioa dela frogatzea eskatzen du (hau da, ez dela beste adierazpen erretoriko bat besterik); agintean berdintasun erakundeak hornitzea eskatzen du beste ministerioei irizpideak igortzeko (horretarako instantzia gorenetik publikoki adierazi behar da). Genero Aginpidea bitartekoz hornitzea eskatzen du, instantzia guztiekin azterketa, koordinazio, jarraipen eta elkarrizketa lanak egin ahal izateko; genero aginteak berak laneko orientazioa aldatzea eskatzen du, 'berdintasunaren aurrekontuaren' gauzatzetik aurrekontu guztia eta administrazio guztietako eguneroko

---

<sup>6</sup> guraso baimenen transferigarritasuna izan ezik, suediar feminismoaren aldarrikapen garrantzitsuen izaten jarraitzen duena

<sup>7</sup> 'Genero berdintasunaren ikuspegia politika publiko guztietan '

[http://www.europofem.org/contri/2\\_11\\_sv/sv-gend/mainstreaming.pdf](http://www.europofem.org/contri/2_11_sv/sv-gend/mainstreaming.pdf)

aurrekontua berriro orientatzea ('ekintza positiboaren' mentalitatetik 'Mainstreaming'aren mentalitatera).

Galdera da gure herrialdean borondate politiko hori dagoen edo ez. Zantzu askok horrela izango den esperantza ematen digute baina ez dira nahikoak itxaropenak eta nahiak. Lerro arteko mezuak edo adierazpen zehatzak ez dira nahikoa, korrante nagusiari ez baitio axola. Behin eta berriz gertatzen da genero berdintasunari buruzko adierazpenak nahiz eta oso konprometituak izan eta goreneko instantzietatik eman, berehala ahazten direla gainontzeko gaiak lantzen direnean. Adibidez, Europar Batzordeak urtero gizonen eta emakumeen egoerari buruzko txosten bat ematen du. Bertan adierazten da genero berdintasuna funtsezkoa dela eraginkortasun ekonomikoa lortzeko, demografia arazoa konpontzeko nahitaezkoa dena, etab. Hala ere, Europar Batzorde berak irizpide horiek ahazten ditu politika ekonomikoa edo pentsioen sistema mantentzeko neurriak ezartzeari dagokionean. Adierazpen horiek oso baliagarriak dira hasierako instantzia batean baina boomerang garrantzitsua bihurtzen dira denbora pasa eta gero praktikara eramaten badira.

Egungo gobernuaren borondate politiko maila neurtzeko adierazle argia izango da enplegu berdintasunean eragin positiboa izango luketen berrikuntzak bultzatzea, esate baterako, PFEZan zerga bateratuak kentzea eta jaiotze eta adopzio baimenak berritzea aitatasun eta amatasun baimenak pixkanaka-pixkanaka berdintzeko. Berrikuntza horiek batera ez lukete aurrekontu kosturik izango (nahikoa izango litzateke zerga bateratua kentzeak emandako aurrezki fiskalarekin), ezta kostu sozialik ere (egungo zerga bateratuen desgrabazioek erdi-mailako edo goi-mailako errentak bultzatzen dituzte soilik). Eta azkenik, aitortutako etsaiak dituzten berrikuntzak dira. Beste berrikuntza batzuk, ahur hezkuntza mundu mailan zabaltzea eta Abortatzeko Epeen Legea, oso garrantzitsuak eta premiazkoak dira. Horiek guztiek mezu ageria igorriko lukete.

Galdera hau utziko nuke airean: haur hezkuntzako sistema publikorik ez dagoen, kode zibilean berdintasunik ez dagoen, edo emakumeen eskubideak errespetatzen ez dituzten hiltzaileak dauden herrialde jakin batean genero berdintasunerako konpromisoa dagoela interpretatu al dezakegu? Gizarte eredu hain ezberdina duten herrialdeetan 'genero ikuspegia duen aurrekontua'z hitz egitean ez al litzateke berdintasunaren alde lanean dabiltzan pertsona asko eta askorengan kontrako efektua lortuko? Horrela gerta daiteke Alemania bezalako herrialdeetan, aspaldidanik baitaude 'berdintasun politikak', 'berdintasun agenteak', 'berdintasunerako aurrekontuak', 'berdintasun erakundeak', 'berdintasun adierazpenak' eta baita 'berdintasun ikuspegia duten aurrekontu esperientziak' ere. Hala ere, 'gizon sostengatzaile/mendeko emaztea' familian oinarritutako gizarte eredu hain ezberdina duten herrialde nabarmena izaten jarraitzen du (Sainsbury, 1999). Korrante nagusian egotea datza, ez korronteak eramaten uztea!